


EREMUAK | HALFHOUSE EGOITZARAKO 2019KO UDAKO DEIALDIA

eremuak programak egonaldi-deialdi bat ireki du, **Halfhouse**ekin lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegoko artistentzat. Deialdiak arte bisualen testuinguruan lan egiten duten artistei eta/edo sortzaileei laguntzea du helburu. **Egonaldia uztailaren 8an hasi eta irailaren 8an amaituko da**, Halfhousen Bartzelonako egoitzan. Egonaldia artistaren erakusketa batekin amaituko da, gune horretan bertan inauguratuko dena 2019ko irailaren 7an.



Halfhouseko egonaldian Leo Burgek eginiko erakusketaren ikuspegia, 2018.

Halfhouse irabazi-asmorik gabeko gune bat da eta artearen esparruko proiektuak garatzen ditu. 2009tik, sortu zenetik, 2018ra, proiektua abian jarri zuten artisten, Sinéad Spelmanen eta Alberto Peralen, etxean garatu da. Denbora horretan, nazioko eta nazioarteko artistek beren lanak aurkeztu eta workshopak egin dituzte Halfhousen. Gainera, gune horretako jardueren artean artisten egonaldiak garrantzi handia izan du beti. 2016tik, Halfhousek egonaldi-hitzarmen bat du **eremuak** programarekin, urtero Euskal Herriko artista bat gonbidatzeko.

Egoitzaren ezaugarriak

2018an, Bartzelonako Udalaren kultura-alorrak Halfhousen jarduera sartitu zuen, artistei eta sortzaileei laguntzeko eginiko lanagatik. Garai horretan, proiektuak etapa berri bati eman zion hasiera, egoitza Verneda auzora lekualdatuz. Bertan, lanerako leku berriak sortu dira eta erakusketa-programa apartari jarraipena eman zaio. Eremuak Halfhouseko 2019ko egonaldia egoitza berrian garatuko da. Halfhousek beste artista-lantegi batzuekin partekatzen du lekua eta, horri esker, beka jasotzen duenak hurbiltasun-harremanak izan ahalko ditu Bartzelonako testuinguru artistikoarekin; harreman aberats eta bizia. Egoiliarak Halfhousen kide diren estudioetako batean lan egiteko lantegi bat izango du, bere proiektua garatzeko. Halfhousen egoitza berria Sant Martí metro-geltokitik hurbil dago, eta metroaren 2. linearen bidez (lila) hel daiteke erraz bertara.

Askotariko ekimenen arteko lankidetzaz-adibide, **Hangar** arte-ikerketako eta -produkzioko zentroak lankidetzan dihardu Halfhousekin, 2019ko eremuak egonaldirako artista egoiliarrari ostaturia emateko. 2011ko amaieratik, Hangarrek artistentzako apartamentu bat du Poble Nou, Can Ricarteko esparruko zaindariaren etxe zaharrean. Beheko solairua eta lehen solairua ditu apartamentuak (80,99 m² eta 62,59 m², hurrenez hurren): bi logela bikoitz, bainugela, egongela eta bi sukalde. Gainera, Hangarren beste gune batzuekin partekaturiko lorategirako irteera ere badauka.

Asmoa da bi artista bizitza bertan, bakoitzaren ikerketa- eta produkzio-proiektuetatik harago, esperientzia- eta ezagutza-trukea sustatzeko eta aberasteko.

Egonaldia amaitzeko erakusketa bat egingo da Halfhousen egoitza berrian. Erakusketa muntatu eta prestatzeko lanetarako, bekadun artistari laguntza emango dio Halfhousek; eta jarraipena egin. Bestalde, Halfhousek hiriko arte-sareko zenbait kontaktu eskainiko dizkio egoiliarrari.

Egonaldiaren baliabideak

- Bi hilabeteko egonaldia: lanerako lantegia Halfhousen eta ostatua Hangarren
- Argiari, Interneti, urari eta gasari dagozkion gastuak.
- Egoiliarrarentzako ordainsariak: 1.200 €.
- Erakusketa egiteko produkzioa: 1.000 € + BEZ.
- Egoiliarrarentzako joan-etorriko bidaia: 150 €.
- Hileko metro-bonuaren kostuak: 100 €
- Erakusitako lanaren itzulerako garraioa: 300 €.
- Erakusketaren ekoizpenerako eta muntaketarako laguntza logistikoa.
- Erakusketaren hedapena.

Egutegia

- **Deialdira aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 26an** amaituko da, gaueko 12etan.
- Hautaketa-prozesuaren emaitza maiatzaren 28an argitaratuko da, **eremuak** programaren web-orrian (www.eremuak.net)
- Egonaldia **2018ko uztailaren 8an hasi eta irailaren 8an** amaituko da.
- **Erakusketa irailaren 7an** inauguratuko da.

Eskaera

Eremuak Batzorde Teknikoak eta Halfhouseko ordezkariak osaturiko epaimahaiak aztertuko dituzte jasotako eskaerak.

Eskaera egiteko, bidali jarraian adierazten diren dokumentuak eremuak@eremuak.net helbide elektronikora:

- Duela gutxi egindako proiektuen 10 irudi (gehenez ere) jasotzen dituen dossier bat, horietako bakoitzaren fitxa teknikoa eta deskribapen laburra barne.
- Beren lanean ikus-entzunezko baliabideak erabili dituzten sortzaileek 5 esteka gaineratu ahal izango dituzte gehenez, horiek ikusi ahal izateko (webguneak, blogak, vimeo, Youtube...). Epaimahaiak minutu bateko zatiak ikusiko ditu eta, beraz, ikusarazi nahi den zatia zehaztea gomendatzen da.

- Dokumentazio osagarria erantsi ahal izango da, eta epaimahaiak material hori ikusi ahal izango du informazio gehigarria behar izanez gero.
- Motibazio-eskutitz bat (nahi izanez gero), gehienez ere 800 karakterekoa zuriunerik gabe (350 hitz inguru).
- Biografia labur bat (gehienez ere 1.000 karaktere zuriunerik gabe, hau da, 200 hitz inguru).
- Datu pertsonalak, harremanetan jartzeko informazioa. EZINBESTEKOA DA HELBIDE ELEKTRONIKOA ETA HARREMANETAN JARTZEKO TELEFONOA ADIERAZTEA.

Halfhouse

Calle Santander 15, Planta 2
Barcelona, 08020
info@halfhouse.org
www.halfhouse.org

www.eremuak.net
ESKAERA EGITEKO:
eremuak@eremuak.net